

UKRAINA. Milaka lagunek hartu dute parte Kiev hiriburuan eta beste hainbat hiritan burututako protestetan

Erredakzioa | DONOSTIA

Ukrainako Gobernuaren egoitza inguruan oposizioak ipinitako protesta kanpaldia altxarazi zuen atzo goizaldean Poliziak Kiev hiriburuan eta 20 lagun inguru atxilotu zituen. Protestan parte hartu zutenek Leonid Kuxma presidentearen dimisioa eskatzen zuten. Iturri ofizialen arabera, Poliziak ekintza galarazi zuen, kalea oztopatu eta zirkulazio arauak hautsi zituztelako.

Polizia goizeko ordu txikitian sartu zen protesta burutzen ari ziren kanpalekuan, eta bertan zeuden 126 kanpin dendak botatzen hasi zen. Oposizioak salatu zuen Poliziaren ekintza Gobernuaren politika errepresiboren ondorio dela, eta zenbait lagun jipoitu zituztela.

Astelehenean milaka lagunek parte hartu zuten Kuxma presidentearen aurkako ekintzetan. Kiev hiriburuan hamabost mila lagun bildu ziren; beste hiri batzuetakoak kontatuta, 50.000 lagun inguru irten ziren kalera. Ekintza horiek oposizioko alderdi guztiek babestu zituzten.

Kazetariaren desagerpenaren bigarren urteurrena

Herrialdeak bizi duen egoera ekonomiko txarraren erruduna Gobernu dela uste dute manifestariak. Gainera, orain dela bi urte hil zuten, Georgi Gongadze kazetariaren hilketarekin presidenteari zerkusua duela diote. Kazetari hori Gobernuarekin oso kritikoa zen, eta 2000ko azaroan hilda aurkitu zuten Kiev inguruko baso batean, bururik gabe. Kuxmak hilketare-

Poliziak Kuxmaren aurkako kanpaldia altxarazi du

Orain dela bi urte gertatutako kazetari baten hilketarekin lotzen dute presidentea, eta horregatik haren dimisioa eskatu du oposizioak



EFREM LUKATSKY / AP

Astelehenean Kiev hiriburuan egindako manifestazio jendetsua, Independentzia plazan.

kin ez duela zerkusirik adierazi du.

Presidentearen dimisioa eskatzeko ekintzak Gongadze kazetariaren desagerpenaren bigarren urteurrenean burutu di-

tuzte oposizioko alderdi guztiek.

1991n Ukrainak independentzia lortu zuenetik bizi izan dituen mobilizazio handienak izan dira. Prentsa askatasuna

mugatzeaz akusatzen dute presidentea, besteak beste.

Adituek zalantzak dituzte protestaldiek presidentea kargua uztera bultzatuko ote duten. Gongadzeren gorpua aurkitu

ondoren, bizi izan zuen eskandaluari aurre egiteko gai izan baitzen.

Hala ere, oposizioak hurrengo asterako protesta ekitaldi gehiago antolatu ditu. Egun batean Legebiltzarra hartzeko asmoa ere badute. Horrela, Legebiltzarra larrialdi bilkura batean biltzen saiatuko dira, Kuxma akusatzeko, nahiz eta hori gertatzea oso zaila izan.

Ukrainako bandera, komunistenarekin batera

Ukrainako banderaren hori eta urdinak komunisten gorriarekin batera ikus zitezkeen astelehenean Kieveko kaleetan. «Gaur egun handia da Ukrainarentzat. Milaka pertsona etorri da, esklabo izaten ez dutela jarraitu nahi aldarrikatzera», adierazi zuen Julia Timoxenko oposizioko buruetako batek.

Herritarren artean oso ezaguna den beste politikari batek, Viktor Juxenkok, protestekin bat egin zuen. Politikari horrek adierazi zuen bere alderdia, Gure Ukraina, Kuxmaren aldeko beste lau alderdirekin negoziatzen ari dela Legebiltzarrean gehiengoa lortzeko. Ondorioz, bere jarraitzaileek diote lehen ministroa izatera itzul daitekeela; 2001. urteko apirilean Kuxmak kargu horretatik kendu zuen.

Kuxma 1994an aukeratu zuen presidentea. 1991n Sobiet Batasunarekiko independentzia lortu zuenetik, boterean denbora gehien egin duen presidentea da. 1999ko bozetan berriaz atera zen garaile. Manifestazio handien egunean, astelehenean, Ukrainatik kanpo zegoen.

IRLANDA. Loialista Boluntarioen Indarrak (LVF) bere gain hartu zuen atzo atentatu saio bat, bere kide bat hil eta lau egunera

Loialisten arteko borrokak indartu dira kide bat hil ostean

Erredakzioa | DONOSTIA

UDA Ulsterren Defentsarako Elkarteko militante Jim Gray tirokatu zuten astelehen gauean, Belfasteko Garnerville inguruan. LVF Loialista Boluntarioen Indarrak bere gain hartu du atentatua, bere kide Stephen Warnock hil eta lau egunetara.

Gray aurpegian tirokatu zuten, lagun batekin zegoela Glenlea parkean. Tiro gehiago ere jaurti zizkieten arren, ihes egitea lortu zuten. UDAko kidearen egoera egonkorra zela esan dute ospitaleko iturriek.

Iturri loialisten arabera, LVF eta UDA erakundearen artean ez dago inongo liskarrik; tirabirak UDAko kide zaharrek dituzte

bakarrik Belfast hiriko ekialdean.

John Reid Erresuma Batuko Ipar Irlandarako Estatu idazkariarekin orain gutxi bilera izan duten buru paramilitarren artean zegoen Jim Gray.

Warnocken hiletak

Ostiralean hildako LVFko kide Stephen Warnocken hiletak atzo egin zituzten Belfasten, segurtasun neurri handien artean. Atzo goizean beste tiroketa bat izan zen, ustez Warnocken anaiaren aurka. Etxera tiroak bota zituzten Invernook herrian; ez zen zauriturik izan.

Stephen Warnock auto banean zegoela, ondotik pasa zen moto batetik tirokatu zuten. Be-

rarekin lagun bat eta hiru urteko alaba zihoazen. Hauetako inor ez zen zauritu. Oraindik ez dago argi nor burutu zuen Warnocken aurkako atentatua.

Belfasteko polizia buruordeak, Alan McQuillanek, adierazi du Jim Grayren aurkako tiroketa Warnocken heriotzarekin lotuta dagoela. Loialisten arteko liskarren ondorio dela gaineratu du: «Arrazoa zein den argi ez dagoen arren, kontuan izan behar da mafia erakundeak direla biak. Ondorioz, droga edo negozio interesen gatazka egon daiteke atzean».

2000ko udan zazpi pertsona hil ziren UDA eta Ulsterko Boluntarioen indarra UVF talde paramilitarren arteko liskarren ondorioz. UDA eta UVFren artean enfrontamendua betidanik egon da; baina ez LVF eta UDAREN artean.



PAUL FAITH / EPA

Polizia forentseko adituak Warnock hil zuten lekua aztertzen, eraso izan zen egunean.